

# CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A. (CAF)

## Ohiko Batzar Nagusirako deialdia

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ("CAF" edo "Sozietatea") enpresako Administrazio Kontseiluak adostutakoaren arabera, akziodun jaun-andreei Ohiko Batzar Nagusira dei egiten zaie. Aipatutako Batzarra egoitza sozialean, Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2016ko ekainaren 11n, 12:00etan lehen deialdian eta, dagokionean, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian. Batzarraren helburua jarraian zehaztuko ditugun gaien inguruan hausnarketa egitea eta erabakiak hartzea izango da.

## GAI ZERRENDA

**Lehenengoa:** Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ren 2015eko ekitaldiari dagokion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, sozietateen talde bateratuko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa-txostena aztertzea eta, dagokionean, onartzea.

**Bigarrena:** 2015eko ekitaldiari dagokion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 5,25 euroko zenbateko gordinarekin dibidenduak banatzea.

**Hirugarrena:** kontuen auditoreak berriz aukeratzea.

**Laugarrena:** Kontseilariak berrestea eta izendatzea.

- 4.1. José Antonio Mutiloa Izaguirre jauna berrestea aginduzko kontseilari gisa.
- 4.2. Marta Bazarrica Lizarbe anderea berrestea kontseilari exekutibo gisa.
- 4.3. Carmen Allo Pérez anderea izendatzea kontseilari independente gisa.

**Bosgarrena:** Sozietateko akzio kopurua zabaltzea akzio bakoitzeko 3,01 €-ko balio nominala 0,301 €-ra gutxituta, lehengo akzio bakoitzeko hamar akzio berri ezarrita, kapital sozialaren zifran inolako aldaketarik izan gabe. Ondorioz, Estatutu Sozialetako 5, 7 eta 21 artikulua aldatzea eta egikaritzeko ahalmenak Administrazio Kontseiluari eskuordetzea, ordezkatzeko ahalmen zehatza emanda.

**Seigarrena:** Batzar Nagusiaren Araudiko 9. artikulua aldatzea gai-zerrendako bosgarren puntuaren arabera Batzarraren iritzia mendeko geratuko diren estatutu mailako aldaketetara egokitzeko, horiek onartuz gero.

**Zazpigarrena:** Kontseilarien ordainketei buruzko urteko txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

**Zortzigarrena:** CAFeko Administrazio Kontseiluak onartutako Kontseiluaren Araudiaren aldaketaren gaineko informazioa Batzarrari ematea.

**Bederatzigarrena:** Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

### **Informazio-eskubidea.**

Akziodun jaun-andereek informazioa jasotzeko eskubidea erabili ahal izango dute Batzarraren deialdia egiten den datatik hasita Kapitaleko Sozietateen Legeko 197. eta 520. artikuluetan aurrez ikusitako baldintzen arabera.

Gai-zerrendako lehen eta bigarren puntuekin lotuta, egun honetatik hasita, edozein akziodunek eskuratu ahal izango ditu Sozietateetik berehala eta doan Batzar Nagusiaren onarpenaren pean geratuko diren dokumentuak (balantzea, galera eta irabazien kontua, ondare garbian ekitaldian gertatu diren aldaketak islatzen dituen egoera, eskudiruaren fluxuen egoera eta memoria), Sozietateko emaitza aplikatzeko proposamena, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreek prestatutako txostena. CAF taldearen kontu bateratuei dagokionez, haren dokumentuak, taldearen kudeaketa-txostena eta auditoriaren txostena ere eskuratu ahal izango dituzte taldeko sozietateetako akziodunek.

Gai-zerrendako laugarren puntuari dagokionez, edozein akziodunek doan eta berehala eskuratu ahal izango du Sozietatearengandik proposatutako izendapen edo berrespenari dagokion kontseilari bakoitzaren nortasunari, curriculumari eta kategoriari buruzko informazioa. Era berean, Kontseiluaren eta Izendapenen eta Ordainketen Batzordearen txostenak eta proposamenak jaso ahal izango ditu. Bestalde, seigarren puntuari dagokionez, Kontseiluak proposatutako aldaketarekin lotuta egindako txostena eta haren testu osoa jaso ahal izango ditu, eta zortzigarren puntuari dagokionez, puntu hori lantzen duen eta Kontseiluak prestatu duen txostena.

Horrez gain, Sozietateko akziodun guztiek gai-zerrendako bosgarren puntuan proposatutako estatutuen aldaketak biltzen dituen testu osoa eta horiek justifikatzen dituen txostena egoitza sozialean aztertzeko duten eskubidea idatziz jasota geratu da. Aipatutako aldaketa horiek Sozietatearen akzio kopurua zabaltzeari buruzkoa da eta, horien ondorioz, Estatutu Sozialetako 5, 7 eta 21 artikulua aldatuko lirarteke. Era berean, dokumentu horiek doan entregatu edo bidal ditzatela eskatzeko eskubidea dute Kapital Sozietateen Legeko 287. artikulua xedatutakoa betez.

Aldez aurretik aipatutako informazio horrez gain, honako hauek guztiak ere akziodunentzat eskuragarri daude egoitza sozialean eta Sozietateko webgunean ([www.caf.net](http://www.caf.net)) osorik eta etenik gabe kontsulta daitezke Batzar Nagusia egin arte: Batzar Nagusiaren deialdi-iragarkia, deialdiaren iragarkia argitaratu zeneko datan zegoen akzioen eta eskubideen guztizko kopurua, Administrazio Kontseiluak gai-zerrendako puntu ugariekin lotuta onartutako akordio-proposamenak gero Batzar Nagusiaren mende jartzeko, 2015eko ekitaldiari dagokion Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena, gai-zerrendako zazpigarren puntuaren arabera kontsultarako bozketaren mende geratuko diren kontseilarien ordainsariei buruzko Urteko Txostena eta Sozietateko Administrazio Kontseiluak onartutako Kontseiluaren Araudi berria.

### **Batzar Nagusira joateko eskubidea.**

Batzarrera joateko eskubidea erabiltzearekin lotuta, akziodun jaun-andreei gogorarazten zaie gutxienez ehun (100) akzioen jabetza (Legeak eskatzen duen moduan) egiaztatzen dutenek soilik izango dutela bertara joateko eskubidea Estatutu Sozialetako 7. eta 21. artikuluek xedatutakoa betez. Kopuru txikiagoa duten akziodunek taldean elkartuta edo

ehun (100) akzio edo akzio gehiago biltzen dituen beste akziodun baten alde eman dezakete haien ordezkariak.

Era berean, Estatutuetan eta Akziodunen Batzar Nagusiko Araudian aurrez ikusitakoa betez, joateko eskubidea izango dute kontuko oharpenen kontularitzako erregistroan izena emanda duten akziodunek, izen-emate hori Batzarra egin baino bost (5) egun lehenago egin bada gutxienez.

Batzarrera joan ahal izateko, akziodunek dagokion “Joateko, ordezkarietarako eta botoa emateko txartela” egiaztatu beharko dute. Aipatutako txartela akzioen gordailuzaina den erakundeak edo, bestela, Sozietateak bidaliko dio. Horrez gain, Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA Unipersonal (Iberclear) sozietatean partaidetza duten erakundeetako batek igorritako ziurtagiria edo indarrean dagoen legeriak onartutako beste edozein modu ere erabili ahal izango dute.

### **Ordezkatzeko eskubidea.**

Batzarrera joan ezin duten akziodunak beste pertsona batek ordezkatu ahal izango ditu nahiz eta hura ez izan akzioduna. Horretarako, Kapital Sozietateen Legean xedatutako baldintzak eta salbuespenak bete beharko dira.

### **Gai-zerrendan puntuak gehitzeko eta akordiorako proposamenak aurkezteko eskubidea**

Gutxienez kapital sozialaren ehuneko hiru (% 3) ordezkatzeko duten akziodunek Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdiaren osagarria argitaratzeko eska dezakete. Bertan, gai-zerrendan, puntu bat edo gehiago sartzeko eska dezakete baldin eta puntu berri horiek justifikazioarekin edo, dagokionean, justifikatutako akordio-proposamenarekin aurkezten badituzte. Eskubide hori erabili ahal izateko, jakinarazpen fede-emailea erabili beharko da (Administrazio Kontseiluko Idazkariari zuzenduta). Aipatutako jakinarazpena deialdi hau argitaratu eta hurrengo bost (5) eguneko epearen baitan jaso beharko dute egoitza sozialean.

Deialdiaren osagarria Batzarra lehen deialdian egiteko zehaztutako data baino hamabost (15) egun lehenago argitaratuko da gutxienez.

Ehuneko hori biltzen duten akziodunek, era berean, aipatutako epe horretan eta jakinarazpena egoitza sozialera bidalita, aurretik bilduta zeuden edo deitutako Batzarreko gai-zerrendan gehitu beharko liratekeen gaiei buruzko akordiorako oinarritutako proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte.

### **Informazio orokorra:**

- Aurrez ikusitakoaren arabera, Batzarra lehen deialdian egingo da.
- Dokumentazioaren doako bidalketaren, azterketaren edo entregaren inguruko azalpenak, informazio osagarria edo deialdi honekin eta Batzar Nagusia egitearekin lotutako beste edozein gairekin lotutako edozein gairi buruzko informazioa eskuratu ahal izateko, akziodunek Akziodunaren eta Inbertsiogileen Arreta Bulegora jo ahal izango dute honako hauen bidez:

1. Telefonoa: 943.18.92.62, lanegunetan eta laneko ordutegian.
2. Faxe: 943.18.92.26

3. Posta elektronikoa: [accionistas@caf.net](mailto:accionistas@caf.net)

**Beasainen, 2016ko maiatzaren 6an**

**Marta Baztarrica Lizarbe anderea  
Administrazio Kontseiluko kontseilari idazkaria**